

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda — 2019ko lehen seihi- lekoa— jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda —2019ko lehen seihi-lekoa—, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea—, hura aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikularekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa hori ordaintzeko epea 2019ko martxoaren 22tik maiatzaren 22ra artekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 8an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO